



Eman hegoak euskarari



Kain eta Abel

Irakurtzen da, ez ikasteko, ikasitakoa bermatzeko baizik

FELIPE JUARISTI



Kain eta Abel anaien arteko lehen gerraren irudia dugu, guk dakigula bederen. Ez zen guda jatorra izan, maltzurkeriak eta bekaizkeriak eragindakoa baino. Biblian esaldi batez laburbiltzen da historia osoa: «Behinola, Kainek esanda, Abel eta biak landara elkarrekin joan zirelarik, Kainek anaiari eraso eta hil egin zuen». Ez da besterik esaten batzuentzat santua den liburuan. Lehenago bada-kigu, narratzaileak hala esanda, Jaunak abegi onez hartzen zituela Abelen eskaintzak eta keinu txarrez Kainenak. Garai hartako Jauna, itxura denez,

ez zen haragizale, nahiago naturak bere aberatsean emandako dohainak, barazki eta abar. Geroxeago hasiko zen Jauna ontzat hartzen haragizko opagaiak. Antropologoen diotenez, gizartearen aurrerabidea izan da nekazaritza. Horri esker hiriak sortu dira, elikagai soberakinak gorde ahal izan dituzte, eta era berean klase-gizartea eraiki da, ez orain ezagutzen dugun bezalako.

Ikuspegi humanista batetik begiratuta, gerra guztiak anai-arreben artekoak dira, gizakia bat eta bakarra delako. Marta Rebónnek 'El complejo de Caín'

idatzi du, Ukrainako erreallitate, askotan nahita ezkutatua, agerian utzi nahian. Idazleaz gainera, itzultzaile ere bada. Berari zor diogu Vasili Grossmanen lanik gehienak gaztelaniaz gozatzeko aukera izatea, tartean 'Bizitza eta Patua', joan den hogeigarren mendeak utzi digun eleberririk sendoen, gogorren eta eredugarriena. Rousseuren jarraitzaile, gizakia sortzez eta berez ona dela sinesten zuen. Ingeniari izanik, ez zen eszeptikoa. Egiaz ari zenean sufritzen zutenen egia aipatzen zuen. Hala Stalingradori buruzko testuan, kirurgilariaren hitzetan: «Nor-

baiti hanka mozten diodanean, badakit ez direla bi egia mahaiaren gainean». Moztu duten hanka dago, moztu diotenaren etsipenarekin batera. Galtzaileen egia dago, zauritu eta hildakoena.

Marta Redónek liburuko azken atalean gutun bat idazten dio Vasili Grossmani. Ezin ahanzi, hona iritsita, 'Azken Gutuna' izeneko testua: amak semeari hil aurretik idazten dizkion hitz hunkigarri eta gozakaitzak, kontsolamendu eskaintzeko idatziak. Grossmanen ama, beste hogeit mila judurekin batera hil zuten. Redónek Ukraina bisitatu du gerra garai honetan, eta oroi-men-ariketa bat eginez, Grossmanek gerra handian ikusitakoa aireratzen du. «Vasili Semiónovich, zer gutxi irakurri zaituzten».

Ez da gutxi irakurtzen, baina irakurritakotik apenas ateratzen den etekina. Irakurtzen da, ez ikasteko, ikasitakoa bermatzeko baizik. Irakurtzen da, ez zalantzen iturria ur berriez

hornitzeko, iturri zaharreko lohiak bere horretan astintzeke uzteko baizik. Irakurtzen da eta denak lehen bezala segitzen du, aldaketarik gabe. Irakurtzen da eta ez da probetxuzkorik ezer ateratzen. Irakurtzeko grina eta jakin-mina baino handiagoak dira bestelako sentimenduak. Tuzididesek Peloponesoko gerrak (senideen artekoak horiek ere) adierazteko eta ulertarazteko idazten du. Espartak Atenasi, handiegi eta ahaltzuegi egingo ote zen beldurrez, eraso zion. Atenasen aurka jo zuen, Atenasek bere aurka lehenago joko ote zuen. Asko errepikatu den azalpena dugu, zergatik Errusiak Ukraina larrutu nahi duen zuritu nahian. Marta Redónek beste teoria bat dauka, 'Weimar sindromea', iraganen jasandako mespretxua politika-bultzatzaile bihurtzen da.

Izan daiteke erresumina edo sumindura, baina Kain eta Abelen historia errepikatzen da, inork inor hiltzen duenean.

Gure ondarea indarberrituz

KARLA FERNÁNDEZ DE GAMBOA VÁZQUEZ

Denon artean argitaletxeak kaleratutako 'Din dilin dan' liburua tamaina txikiak ez zaitzatez engaina, Pello Añorgak bali handiko ondarea bildu baitu bertan. Idazle eta ipuin kontalari oartzuarrak jolasak, poemak, kantak, formulak, konjuruak, errituak... ia 200 pieza jaso ditu, batzuk gure ahozko tradizioetik jasoak eta beste batzuk berak sortutakoak.

Liburua zazpi ataletan banatzen da, eta horietako bakoitzean haur ttipiekin batera jolasteko, kantatzeko edota erreziatatzeko hamaika poematxo aurkitzen dira, besteak beste: zotz egiteko, kilimak egiteko, mina kentzeko, zutik ibiltzen hasteko, haurrekin batera hainbat ekintza edota urteko ospakizunak partekatzeo, gertakari meteorologiko edo izaki bizidunekin hitz egiteko, eta hatzekin, kanikarekin,

gorde-gordeketan, zabuan edota sokasaltoan jolasteko. Hori gutxi balitz, pieza bakoitzaren bukaeran egileak hori abesteko edo jolasteko orientabideak emateaz gain, zein adinetatik aurrera gomendatzen duen zehazten du. Ez hori bakarrik, amaiera gisa QR kode baten bitartez pieza guztien ikus-entzungen eskuragarri dauden YouTube kanalera sar gaitezke.

Hau ez da haurrentzat zuzendutako poesia liburua, baizik eta haur horiekin egunero diharduten bitartekariarentzako ezinbesteko baliabide iturria. Etxean ttipiak dituzten guraso zein senideek, maisu-maistrek (berezi Haur Hezkuntzakoek), ipuin kontalariak, liburuzainek... uneoro eskura izan beharko luketena, hain justu. Izan ere, Itziar Zubizarretak idatzitako sarreran azaltzen den bezala, haur poesia, jolasak eta kantuak ezinbestekoak dira haur txikien garapenerako. Añorgak ahaztuta dauden edo gutxi erabiliak diren piezak berreskuratu ditu, orain guri dagokigu ondare hori zaintzea, hedatzea eta belar-naldi berriekin partekatzea. Eta horretarako, zer hoberik gure ttipiekin kantatu, jolastu, erreziatzea eta dibertitzea baino?



DIN DILIN DAN
PELLO AÑORGA/
MAITE ROSENDE
Denon artean. 243 or. 30 euro

Eskola eta oinazea

ARANTXA URRETABIZKAIA



Edonoren bizitzan daude argiak eta itzalak, batzuetan arinak, besteetan sakonak. Helduok pentsatu ohi dugu hori guri dagokigula, haurtzaro gehienetan ez dagoela iluntasunik edo, horrelakorik balego, haurrak berehala gainditzen dituela. Hori pentsatu nahi dugu, guraso izan ala ez, haur bat eskolara daramagunean, dena izango dela poz eta irri, festa giroa izango dela nagusi.

Eta agian horrela izango da gehienetan. Baina erreallitateak frogatzen digu mina, are oinazea, gaindiezinak izan daitezkeela haur batzuentzat. Ez dakit lerro hauek idatzi eta argitaratu bitartean zer gertatuko den, baina une honetan fresko daukat hamar urteko neska baten suizidio ahalegina.

Neska horrentzat, joan den ikastur-

tea kalbarioa izan zen, eskola kide batzuen eraginez. Irainak, arbuioak, bazterkeria. Umekeria txikiak kaltegieen gurasoentzat eta irakasleentzat, arazo larria kaltegiarentzat eta haren gurasoentzat, jostaketa albo ikusleentzat, egoeraren aurrean etxean ikasitakoa egiten dutenentzat.

Zu ez sartu saltsatan, zu zeurera, ezikusiarrena egin, esaten diegu eta haur gehienek hori egiten dute. Baina luxu hori ez dago kaltetuaren eskura. Lehen aipatu dudana neskak aringarri gisa hartu zituen oporrak ikasturtearen bukaeran, ia-ia ahaztu eta guzti egingo zuen, tarteka, sufritutakoa. Denborak, ordea, beti egiten du aurrera eta udaren bukaerarekin etorri zen ikasturte berria.

Eta hor zeuden erasotzaileak, min emateari gustua hartuta. Bigarren eskola egunean neskak etxetik kalera salto egin zuen. Ospitalean dago, alda-ka hautsita. Bizirik.

Kaltegieak, berriz, eskolan, ezer egin ez balute bezala, lasai asko, harro agian. Kaltegieen gurasoak, irakasleak eta lekuko isilak? Auskalo, baina, seguru, gertatutakoari garrantzia kentzen. Hori da mingarriena, errudunen axolagabekeria, lekukoaren zurikeria.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

2 Berriz zentauro

Katixa Agirre. Elkar

3 Bar Gloria

Nerea Ibarzabal Salegi. Susa

4 Azken Etxea

Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

EZ FIKZIOA

1 Mandamentu hipermodernoak

Iñigo Martinez. Elkar

2 Heriotzari aurrez aurre begira

Oskar Gaztelu. Erein

3 Kurdistan argi bat ekialde hurbilean

Urtzi Urrutikoetxea. Elkar

4 Gaueko eztabaidak

Agustin Arrieta. Erein